

## Epaileen erabakiaren zain dira abesbatzetako kideak

**SAIORIK EZ** ▶ Atsedeen eguna zen atzokoa partaideentzat; zesta-punta erakustaldiaz gozatu zuten

**EPAIA** ▶ Gaur emango dute Usabal kirolgunean izango den itxiera ekitaldian; 11:00etan hasiko da ▶ 6-7



Zesta-punta erakustaldia egin zuten atzo abesbatzetako kideentzat Beotibarren; ikusleen artean bi saski banatu zituzten, aztertzeKO. IMANOL GARCIA

**XABIER ELOSEGI** ▶  
IKERLEA



JOXEMI SAIZAR

«Aitak bazuen zaletasuna, eta jarraitu egin dugu»

Ikerle tolosarrak liburua idatzi berri du Ipar Euskal Herrian ▶ 2

**TOLOSALDEA** ▶

Urkizu eta Arozena, munduko txapeldun ▶ 3

**ANOETA** ▶

Juan Carlos Oterok dio gazteek ez dutela egun pilotak egiten ikasteko beharra, ohitura «galdu» egin dela

Anoetan duen pilota lantegia da pala luzeko profesional izandakoaren frontoia egun; ahuntz larrua erabiltzen du ▶ 3



Egunean pilota dezente egiten ditu Oterok. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI-PRESS

XABIER ELOSEGI ▶ IKERLEA

# «XIX. mendean aberastasuna baserriak izatea zen»

'Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI.-XIX.)' liburua kaleratu du Ipar Euskal Herrian bizi den ikerle tolosarrak

JOXEMI SAIZAR

Lehenengoetako euskal erre-fuxiatua izan zen Xabier Elosegi (Tolosa, 1937). 1962an alde egin zuen Tolosatik Ipar Euskal Herrira. Geroztik Azkainen, Hazparnen, Bordelen —Euskal Herritik bidalita— eta Saran bizitu da eta azken urte honetan, Baionan. *Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI.-XIX.)* liburua kaleratu du Eusko Ikaskuntzarekin duela hilabete gutxi. Baionan hartu du HITZA, bere etxean, liburuaz eta bere bizitzaz hitz egiteko.

**Nola sortu zitzaizun liburu hau idazteko asmoa?**

Saran urte asko egin nituen bizitzen, hamalau edo. Hasieran ez nekien zer egin nahi nuen. Artxiboetan eta dokumentuetan miazten hasi nintzen eta hau da lanaren fruitua.

**Familian historia eta artxibekiko zaletasun handia duzue, aitarengandik hasita.**

Bai. Aitak bazuen eta anaietako batzuk jarraitu dugu zaletasun horrekin: Luis Marik Hondarribiako baserriez liburu bat egin du, Jose Miguelek Leitzako toponimia aztertu du eta Aralar-ko mapa egin du, Juan Inazioek Bedaio eta Tolosa inguruan egin ditu azterketak, Iruñean Jesusek ere hainbat lan egin du... Osaba Jesus izan zen mito eta eredu guretzat: Aranzadi zientzia elkarteak sortu zuen, kobazuloak eta trikuharriak aurkitu zituen eta erakusten zizkigun.

**Zein izan dira iturri nagusiak?**  
Napoleonen katastroa (1839-koa), erregeari zergak ordaintzen zizkioten etxeak agertzen den 1505eko dokumentu bat, Elizak eginko inkesta bat 1588an (bertan agertzen direlarik lur berriak, eta ondorioz zerga berriak), zor bati buruzko eztabaida azaltzen duen

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Furgoneta.** Nissan Serena furgoneta salgai. 95ekoa. 1,50eko ohearekin. 3.000 euro. Telefonoa: 658 727 699.



JOXEMI SAIZAR

1630eko beste bat eta saratar garrantzitsu batzuk nobleen aurka edukitako auzi bati buruzko 1688ko beste bat. Horrez gain, Sarako artxiboa.

**Zein informazio lortu duzu bakoitzetik?**

Napoleonen katastroa oso aberatsa da. Bere garaian administrazioa martxan jarri zuten eta zergak beharrezkoak zituen Estatuak. Horretarako lur sailak sailkatu, nagusiak identifikatu, edozein partzelaren berri jaso behar zuten. Etxea, bere jabea, partzelaren izena, zenbat metro karratu ziren, zer lur mota zen eta zenbateko zerga ordaindu behar zuten zehazten du katastro horrek. 4.000 lerro agertzen dira Sararen kasuan. Aiherran berariz, 3.400 inguru. Orain arte datu horiek ez dira esplotatu ezertarako. 251 jabe ziren Saran. Batz bestekoa 16 lerro bakoitzarentzat, baina baziren 100 edo 200 lerrokoak, beste batzuek, aldiz, 1, 2 edo 3 lerrokoak jabetasunen arabera. Honekin batera mapa oso ona zegoen. Bien artean katastro zaharra osatzen dute. 1505eko dokumentuan guztira 84 etxe agertzen dira. Elizak zergak,

hamarrenak eta horrelakoak, biltzen zituen eta horretarako lur berriak erroldatu behar zituen. 1630ekoan bizilagunak notarioaren aurrean bildu eta Ziburuko burges batekin zuten zor bati buruz eztabaidatzen dute. Azkenik, 1688ko dokumentua 46 urte lehenagoko auzi baten segida da.

**Noiz sortu ziren artxiboak?**

Ezin jakin noiz hasi ziren. Dakiguna da zer iritsi zaigun. 1609-1624 urtetako 1.048 bataio agiri Saran erretor izan zen Atsularen burges batekin zuten zor bati buruz eztabaidatzen dute. Azkenik, 1688ko dokumentua 46 urte lehenagoko auzi baten segida da. **Noiz sortu ziren artxiboak?** Ezin jakin noiz hasi ziren. Dakiguna da zer iritsi zaigun. 1609-1624 urtetako 1.048 bataio agiri Saran erretor izan zen Atsularen burges batekin zuten zor bati buruz eztabaidatzen dute. Azkenik, 1688ko dokumentua 46 urte lehenagoko auzi baten segida da.

ren badira herriko artxiboak eta Elizarenak.

**Eta informazio guztia nola egituratu duzu?**

Liburuaren hezurdura Sarako etxeen zerrendek osatzen dute: Saran gehienak etxeen jabeak ziren, behartsuak izan arren. Aiherran eta Usurbilen alderantziz, maizterrak ziren gehienak. Erabilitako dokumentuak eta taula nola irakurri azaltzen dut. Etxeak noizkoak diren esaten dut. Etxeen izen aldaketak izan dira, agertze-desagertzeak izan dira mende batetik bestera. Borda izeneko etxe asko agertzen dira XVIII. mendean, baina ez mendian, herritik gertu baizik. Beste inon ez da hori gertatzen. XIX. mendean aberastasuna baserriak izatea zen, erosi egiten zituzten. Liburuaren bigarren zatian Sarako deiturak jaso ditut. 1.396 abizen jaso ditut guztira: noiz agertzen diren, bere sarta-tasuna...

**Zenbat denbora eskaini diozu lan honi?**

Guztira hamabost bat urte, gehiegi, beharbada. Duela hiru urte bukatu nuen, baina orain arte ez da kaleratu. Batzuk oso gustura dira nire lanarekin.

**Nondik atera duzu denbora?**  
Perito merkantil eta industriaren ikasketak egin nituen, baina ez nituen bukatu. Baionako enpresa bateko zuzendaria izan naiz erretiratu arte. Lanor-duz kanpo, eta, batez ere larunbatetan aritu naiz lan honetan, ordu asko sartuz.

**Aurrera begira, halako beste asmoren bat ba al duzu?**

Orain Aiherran ari naiz antzeko zerbaite egiten eta agian aterako dut. Seme bat han bizi da. Orain errazagoa da, teknologia berriekin eta. Hasi nintzenez dena eskuz egiten nuen, baina orain ordenagailuz.

**Nola gogoratzen dituzu gazarloko urteak Tolosan?**

Oargi elkartean oso sartuta egon nintzen 1952tik 58ra edo. 1956an, Tolosaren 7. mendeurrenean antzerkia egin genuen herriaren historiari. Estropadak ere berreskuratu genituen, pintura erakusketak antolatzen genituen, ezkon aurreko ikastaroak, mendi irteerak... Jose Manuel Ugarte, Jose Miguele Ceberio eta beste batzuk aritu ginen garai hartan Oargin. Euskaltzaleak ginen, askotan kontzientzia abertzalerik gabe.

**Nola izan zen alde egin beharra Tolosatik?**

1961eko uztailaren 18an, gerraren hasieraren 25. urtemuga Espainiako gudarien biltegia handia izan zen Donostian. Añorga trenbideari lehergailu bat jarri zioten eta ez dakit zein zen egiazko asmoa. Bestalde, hainbat Donos-

**ARTXIBOAK**

«Aitak bazuen artxibo eta historiarekiko zaletasun hori eta anaietako batzuk jarraitu dugu»

**ETXEAK**

«Saran gehienak jabeak ziren, behartsuak izan arren; Aiherran eta Usurbilen alderantziz, maizterrak gehienak»

**TOLOSA**

«Kalea asko aldatu da; lehen ez zen euskaraz entzuten eta orain bai; kultura aldetik aski ongi dago»

tiako lekutan piperpoteak erre zituzten. Ondorioz atxiloteta asko egin ziren. Joseba Ulazia apaizak gure aldeko sermoia egin zuen Santa Maria parrokiaren eta hurrengo egunean Tolosatik bota zuten. Orduan horrelako ekitaldiak ETaren 6. adarrak egiten zituen: ikurri-ñak jarri, leherketa txikiren bat... Gauza sinbolikoak. Gu propagandan ari ginen. Sei hilabete egin nituen Caraban-chelen eta Eguberri ondoren kalera atera ginen, ezer ulertu gabe. Handik gutxira Ipar Euskal Herrira alde egin nuen.

**Nola ikusten duzu gaur egungo Tolosa?**

14 urte egin nituen joan gabe, 1976 arte. Familiaren bidez mantendu dut harremana. Kalea asko aldatu da. Lehen ez zen euskaraz entzuten eta orain bai. Pentsatzen ez genuen jende askok euskaraz bazekiela konturatu ginen gero. Kultura aldetik salbuespena izan da beti Tolosa eta segitzen du izaten. Donostia eta gauza puntual batzuk kenduta, segitzen du ildoan, aski ongi dago alor horretan. Hirigintza aldetik nahiko txukun dago orain. Laskorain inguruan baratzak ezagutu genituen. Eta ondo mantendu da. Inguruan, berriz, arkitektura aldetik desastre asko egin dituzte eta ez da arkitektoen akatsa izan. Baserri asko deformatu egin dituzte ikuilu eta terraza handiak eginez, inpakto paisajistiko izugarria eginez, estetika zaindu gabe. Demografia aldetik gutxi ezagutzen dut egungo egoera. Tolosa industrialen, guk hala ezagutu genuen, eta orain ez da. Paperfabriketako langileak ateratzen zirenean ikusgarria izaten zen. Hori ez dago orain.

ANOETA ▶ PILOTA

# Hari eta larruen jostun trebea

Pilotaren mundua primeran ezagutzen du, barrutik nahiz kanpotik; pala luzeko profesional izana, Anoetan duen pilota lantegia da Juan Carlos Oteroren frontoia

IÑAKI GURRUTXAGA / BERRIA

**T**xikitatik izan du Oterok pilotarako zaletasuna. Herriko pilota eskolan hasi zen eskuz jokatzeko. «Herriko pilotak egiten zituen lagun bat bazegoen, eta, gu herriko pilota eskolan genbiltzala, koadrilako bi lagun hasi ginen harekin ikasten». Egin zituen lehenengo pilotak herriko pilota elkarterako eta lagunartean jokatzeko izan ziren. Afizioa ofizio bihurtuz, hamasei urterekin hasi zen pilotak egiten, pilotagile izaten. «Orain arte hau izan da nire lanbidea, eta gerora ere hala izatea espero dut». Artean, gainera, frontoiarekiko eta pilotarekiko harreman estua izan du, bederatzirekin urte egin baititu pala luzeko profesional modura.

Beste hiru lagunekin batera, Otero Pilotagileak enpresa sortu zuen orain urte batzuk. Anoetan dute lantegia. Hala ere, ez dira haiek izan Euskal Herrian bizibide honen alde egin duten bakarrak: Lapurdin badira pare bat pilotak egiten aritzen direnak, Gipuzkoan Otero bera eta besteren batzuk, Bizkaian Zipri dago, profesionalentzako pilotak egiten dituen, eta Arroioabe Elorrioren, pilota asko egindakoa. Araban bakarren bat badago, eta Errioxa aldean, berriz, makinaz egiten dituztenak.

Oteroren esanetan, profesional modura aritzen direnen artean eta beste artean bereizketak egin beharra dago. «Larri daskan aritzen direnak ere badaude. Askok erretiratuak dira, prezioak jaisten dituzte, eta min pixka bat egiten dute», azaldu du. Hala ere, ez die aparteko garrantzirik ematen horien jardunari, eta pilota munduan dagoen tradizioaren barruan ikusten ditu: «Garai batean denek egiten zituzten pilotak eta ohitura horren piskizan jarraitzen dute. Oraingo gazteek galdua dute ohitura hori, ez dute ikasteko behar hori».

Orain urte batzuetatik hona pilotak egiteko modua ez dela asko aldatu dio, nahiz eta zenbait berrikuntza egon badauden. Esaterako, lehen egurrezko bolatxo bat, ezpela izenekoa, erabiltzen zen pilotaren bihotza egiteko, eta egun plastikozko kanikak erabiltzen dituzte. Material aldetik sumatzen den aldaketa nagusia hori



Egunean pilota dezente egiten dituzte. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI-PRESS

da, eta egiteko eran ere badaude egokitzapen batzuk, batez ere pilotalekuen eta enpresen nahietara moldatu beharra dagoelako. Latexa eta haria ere ez dira lehengo berdina.

Plastikozko pilota hartu eta latexa prestatzen hastea da Oterok egiten duen lehen lana. Latexa goma da, kautxua, eta, egin nahi duen pilota motaren arabera, latex kantitate bat edo beste jartzen dio. «Adibidez, pilota gozoa egiteko, goma aruntagoa erabiltzen da, lodixagoa, soinuak ez duelako baxterez interesik», argitu du. Behin plastikozkoan bilduta kixkia, ama edo bihotza eginda dagoela nabarmendu du. Latexa da pilotari bizitasuna eta soinu ematen dizkiona. Alegia, pilotari oso latex fina jarriz gero, pilota gero eta gogorragoa eta bi-ziagoa izango da.

## Pilota nola egin behar den

Pilota gozo bat egiteko hiru ordu laurden nahiko dela dio pilotagileak, baina eskuzko tokeko bat egiteko prozesu bati jarraitu behar zaiola nabarmendu du. «Larruak eta hariak busti egin behar dira, latexa pixkanaka jarri behar zaio, eta ez dena kolpetik, ez delako ona. Orain, segidan eginez gero, bi edo hiru ordu artean beharko genuke». Tokeko pilo-

egin behar dira», azaldu du. Oteroren iritziak, tokeko pilotak «hotsa» atera behar du, eta horren barruan daude toke bera eta pilotaren pisua.

«Hori bai pilota!», esaten omen du jendeak horrelako pilotak ikustean, eta hori kirolariek ahalegin handiagoa egin beharra dutelako esaten dela dio: «Horren atzetik euskal kirolen mundua dago: sakrifizioa eta sufrimendua. Jendeak hori baloratzen du. Sufrimendurik ez badago, lehiarik ez dago». Mamu horiek guztiak uxatzeko «bakoitzak bere mailako pilotekin jokatzeko» besterik ez dagoela esaten du.

Otero Pilotagileak taldea pilotari profesionalen munduan sartzeko ahaleginetan ari da. Frontis enpresakoek, esaterako, anoetarren pilotekin jokatzen dute, eta Asegarcekoek eta Aspekoek entrenamenduetan erabiltzen dituzte. Afizionatuetarako eta inguruan jokatzen diren txapelketetarako ere egiten dituzte pilotak. Pilotari profesionalak pilotekin izan ohi dituzten kekek ez direla horrenbesteko esan du Oterok: «Txapelketa ofizialetan gertatzen da bakarrak. Saskian pata-tzen bat badago, orduan azaltzen da egunkarietan, baina bestela... Pilotariak eta enpresak zer nahi duten asmatzen zailagoa da».

Ahuntzaren larrua erabiltzen dute pilota egiteko. Pilotari batzuek larru normaleko pilotak dituzte gustuko, eta beste batzuek, buelta emandako larruarekin egindakoak. Batzuk azalaren barruko aldearekin egindakoak dira, eta besteak, azalaren kanpoko aldearekin egindakoak. «Buelta emandakoa zakarragoa da, baina gantza ondo onartzen du, eta prozesu berezia izaten du. Gainera, esaten dute gehiago ateratzen dela, gogorxeagoa dela, baina nik uste dut ez duela horrenbesteko alderik», esan du.

Kontuak kontu, Otero eta haren koadrilakoek hor segituko dute pilotak egiten, iristen zaizkien eskaerei behar bezala erantzuten. Haren ustez, ordea, pilotaren munduan «zulo galantak» daude, eta esku pilota «hari batetik zintzilik» dago: «Telebistaren indarra eta partida erakargarriak kenduz gero, frontoian ez da hainbeste jende izaten». Baina, etxeko negoziolari eusteko arazorik ez duela izango iritzen dio.

## NOR DA? ▶

**Izena.** Juan Carlos Otero.  
**Jaioterria.** Alkiza.  
**Jaioteguna.** 1966ko urtarrilaren 12a.  
**Bizilekua.** Anoeta.  
**Ogibidea.** Pilotagilea.  
**Zaletasunak.** Astean behin edo bitan pilotan jokatzea du gustuko, eta asteburuan familiarekin egotea.

## LANBIDEA

«Lehen denek egiten genituen pilotak; gaurko gazteek ohitura galdu dute, ez dute ikasteko behar hori»

## PILOTAK

«Joera dago esateko tokeko pilotak direla onak eta gainerakoak ez; esaldi horiek baztertu behar dira»

taren kontua entzuna da pilotaren munduan, baina gaizki-ulerteru ugari sortu dira horren inguruan. «Joera handia dago esateko tokeko pilotak direla onak eta gainerakoak ez direla onak. Esaldi horiek baztertu

KIROLA ▶

## Urkizu eta Arozena, munduko txapelkunak

Xarean aritu diren eskualdekoentzat hirugarren postua Txileko txapelketan

### ERREDAKZIOA

Itsaso Urkizu berastegiarrak eta Nagore Arozena lizartzarrikak beste bi lagunekin osatu duten selekzioak irabazi du 22 urte aspiko Munduko Txapelketa Trinketean gomazko paleta argentinarraren. Uruguako taldearen aurka jokatu zuten partida gogorra. Itsaso Urkizuk aukera guztiak aprobetxatu zituen, tanto ederrak eginez.

Xareko mutilek, berriz, 3. postua lortu zuten 40-22ko emaitzarekin. Argentinarekin hasieran kontra pixka bat egin zieten, baina azkenean partida eskuratu zuten.

### TELEFONOAK ▶

#### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Oreandain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzioen Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

#### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzararen autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

#### Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egotiza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA

«Lizardiren monumentua ere puskatu zuten 1936an!»

Mikel eta Andoni Garikano anaia tolosarrek Xabier Lizardiren inguruan esandakoak bildu ditu HITZAK

MIKEL A. ELUSTONDO / ZALDI ERO

Perot lantegian egiten zuten lan Lizardik. Oihar metalikoak egi- ten ziren fabrika hartan. Bertako gerente zen, nahiz eta Zuzenbide ikasketak eginak zituen lehenagotik Madrilen. Lanetik irten eta askotan joan zen mendian gora, atsedan hartzen eta burua askatzen. Asko ibili beharrik ere ez zuen. Fabrikatik irten eta bertatik bertara zeukan Urkizu mendia. Perot atarian, esaterako, Torre baserria, Goravego, Luzziariga eta Muntegi. Jose Ariztimuño Aitzol-eko anaia Muntegiengoi sagastian, non edo non han etanda eman zola tankera Lizardik naturalerazi. Sagastia zuela lehenen-lehenengo.



Xabier Lizardiren monumentua bitxiki egin zuten 1936an, baina bertan utzi zituzten puskak.

MIKEL ETA ANDONI GARIKANO

«Urkizu aldean ikusiak eman zion 'Urte-giroak...' idazteko arrazoia, eta ez neurri txikian»
«Lizardi gazterik hil zen. Pneumonia txar batek eraman zuen, 36 urte besterik ez zituela»

«Gure koinatuak, monumentuaren puskak isilka hartu eta Muttegin gorde zituen urte askoan»

«Gerra garaian, jende guztia txapel gorriarekin ibiltzen zen, baina gurean ez zen inoiz jantzi»

bat azeituna. Txikitxo esan digu, baina ez zen oso handia izango, bi labarra ziren eta orduan, bata Zeru txiki zen eta bestea, bertu, Zeru handi. Etal dira zaien politikak?

Baina Lizardi gazterik hil zen. Pneumonia txar batek eraman zuen, hogeita hamarrei urte besterik ez zituela. Haren fama oso handia zen, poetarik handienetakoa zen. 1935an argitaratu zuen Biotz-begietan, baina liburua horretako zenbat olerki lehenagoak ziren, askariak jasota zeduen Euskal poesiaran egunean. Errenterian eta Tolosan. Punta-puntikoa den? Lizardi hil zen urte berekoa, 1933koa...

Gure aita zenak ondo ezagutu zuen Lizardi. Anaia zenak, berri- ritz, kontatzen zuen pogo- ritz zela nola igande gozotan Lizardi lagunartean ibiltzen zela, tokilean, eta etxerakoan beti eramaten zuela kukuruzo

idazlea zen Lizardi gara hartan... Horregatik, hil zen urtean bertan, jaso zitoten monumen- tuak Urkizan. Handik hiru urtera, 1936. urtean, gerra etorri zen, eta puska- tu egin zuten monumentua...


1936

Gerra hasi zenean gure aitak alde egin behar izan zuen. Lehenbuzko, Aiarra joan zen. Han, hamabost bat egun edo pasatu zituen Gortia baserrian, Altra- zelako lepoan. Buelatu zuen etxera eta, arimen egunean, erreteetan buru zenak, Jexux Arzuagak, bakotzari berea, fama txarra zuten baina gure etxera etorri eta esan zion aitari: «Antonio, alde egin ezak, gauetan hiru bila etorriko ditak eta». Da hiru bider ere etorri ziren gure aitarien bila, baina txortia ez zegoen habian ordu- rako. Badaikijugu gau bat Her- nialdean pasatu zuena. Hurren- go egunean, lasakun mendia- gainetik Belauntzako zuloa jaitsi zen. Han, zain zeukan amagarrarekin. Uranga taxia- ren. Dirusk ez zen orduan, eta zapu- zortzi ontza urte. Ameri- ketakoak zirenak, eraman zit- uen. Hakekin konpordu zuen. Gero, amaren lehenagusi bat, Aranburu, Berrobikoa, atea zit- zion. Hark Donezatebera pa- satu zuen. Han, andreairen al- detik lehenagusi egiten zen beste bat zegoen, Jexux Iribar- ren, erreteetako sarjentua. Honek, hurrengo egunean ha- tenen bat ekarri eta Peña Platatik, Aitz-zuritik Auritzenbordara, Sarrera pasatu zuen gure aita. Lau bat hilabete egin zen han, Gernikako bonbardaketa izan zenean, apirilaren 25an, hango umeak hartu eta Garatza er- man zituztenean, zitadelaia, hantxe egin zen gure aita, la- guntzen.

Gure aita Prantziara joan zenean gu etxean gelditu ginen, ama, lau umeekin. Ana gogoiak Gosea ere handia izan zen ga- rai hartan. Aldamenean, ez- ker-eskuan, oso karlita am- arretua bizi zen. Semea ere Dvri- sion auzi- en izan zen. Guk euskaraz besterik ez ge- nekien. Kantatzen ere zaleak ginen. Jai-julirik, Boga-boga, Azkatasun eguzkia eta horien antzekoak kantatzen genituen...

Azkatasun eguzkia basotik irten da bere argia edozein dia arizabaltzen (eta itaztu zaitz euzkotarra aupa euzkaldun guztiak gora, gora antzizko legea. Gora Euzkadi, bizi bedi gora Arana Goiztar Sabin Jaungoikoa. Lege zurra... Gora euzkotarra!

Mikel eta Andoni Garikanori buruz



Ezker-eskuan, Mikel eta Andoni Garikano. Jaxu-ro

Mikel eta Andoni Garikano Sobalberrieta. 1929an jaioa da, 1932an, bestea. «Bigarren del- tura Solaberrietan, ez Solaba- rrietan. Deltura hori oso ugria da Orio eta Usurbil parte ho- rretan. Tolosan jaio, hazi eta izirik. Gerra-surreko Tolosa- bizimoduaren zertzeladak emateko gai dira. Eritzun eta irakurria diaktie. «Tolosa, moda-modako herria zen ordu- an. Gurek, bakotzari berea, fama txarra zuten baina gure etxera etorri eta esan zion aitari: «Antonio, alde egin ezak, gauetan hiru bila etorriko ditak eta». Da hiru bider ere etorri ziren gure aitarien bila, baina txortia ez zegoen habian ordu- rako. Badaikijugu gau bat Her- nialdean pasatu zuena. Hurren- go egunean, lasakun mendia- gainetik Belauntzako zuloa jaitsi zen. Han, zain zeukan amagarrarekin. Uranga taxia- ren. Dirusk ez zen orduan, eta zapu- zortzi ontza urte. Ameri- ketakoak zirenak, eraman zit- uen. Hakekin konpordu zuen. Gero, amaren lehenagusi bat, Aranburu, Berrobikoa, atea zit- zion. Hark Donezatebera pa- satu zuen. Han, andreairen al- detik lehenagusi egiten zen beste bat zegoen, Jexux Iribar- ren, erreteetako sarjentua. Honek, hurrengo egunean ha- tenen bat ekarri eta Peña Platatik, Aitz-zuritik Auritzenbordara, Sarrera pasatu zuen gure aita. Lau bat hilabete egin zen han, Gernikako bonbardaketa izan zenean, apirilaren 25an, hango umeak hartu eta Garatza er- man zituztenean, zitadelaia, hantxe egin zen gure aita, la- guntzen.

Gure aita Prantziara joan zenean gu etxean gelditu ginen, ama, lau umeekin. Ana gogoiak Gosea ere handia izan zen ga- rai hartan. Aldamenean, ez- ker-eskuan, oso karlita am- arretua bizi zen. Semea ere Dvri- sion auzi- en izan zen. Guk euskaraz besterik ez ge- nekien. Kantatzen ere zaleak ginen. Jai-julirik, Boga-boga, Azkatasun eguzkia eta horien antzekoak kantatzen genituen...

Azkatasun eguzkia basotik irten da bere argia edozein dia arizabaltzen (eta itaztu zaitz euzkotarra aupa euzkaldun guztiak gora, gora antzizko legea. Gora Euzkadi, bizi bedi gora Arana Goiztar Sabin Jaungoikoa. Lege zurra... Gora euzkotarra!

an. Orixe oso berekoa zen. Kontua da zer bait gaitzi esan zuela, esan ostetik, bertso- rrien kontu. Orduan, altxa zen Basarri, eta erantzun egiten zion, jende arteko. Egia da, egia da, nik ikusi dudakoa kantaritako moduan da Mikel Garikano: «Bai, ze ni han nin- ten. Basarriren ondoan. In- garrikio iskanbila izan zuten bieki. Basarriren ondo-ondo- nintzen, eta ez zait behin ere abaratu». 4

1961an, Antonio Maria La- bajen eta beste tolosar batzuk Tolosa alkategaia joan zi- ren, politika kontuak alde bate- ra utzi eta Lizardiri omenaldia egin nahi zutela esanez. Gara hartan Enrique Ortiz de Zarate zen herriko alkate eta, bestal- de, Lizardirik mutilizat hartu zuten Perot fabrikako gerente izan zen sasolan. 1933an Lizar- diren mutil Peroten, eta herriko alkate 1961an! Pailagotia po- rrokatus zen familia dena, bai- na Enrikek ezin ezte esan, eta izugarriko omenaldia egin zen Tolosan.

Handik bi urtera, bestal- de- tik, isilkia, monumentua berttu

zen. Beharko isilka egin! Gure koinatuak hartu harriak gur- dian eta Muttegin gora ekarri zituen. Han, beste koadrila ba- tek, Luis Larrate hartina buru eta haren seme Pako tartean zela, atxera jaso zuten monu- mentua isilki bestere eta guar- dia zibilen zelatan. Torren, Bentaundin, Hernialden eta Muntaberrin egiten ziren zain zuten lagun, guardia zibilik azalduz gero monumentua ja- sateko lanetan ari zirenei ez- kuzteko aginteko.

Harrezkero hemen da Lizar- diren monumentua. Orain, Dama-huririk monumentua, Lizardi bazterrekoek jarritako plakak daude. Lizardiren poe- ma- atalekin. Monumentuaren inguruko lizarrak, orain dela hamabost urte inguru jarri ge- nituen. Paresan dagoen Txori- tokieta menditik atara urtebe- ko lizarrak eta hementxe ber- tan sartu genituen... Eta gaur arte!

Eta ez da general Lizardiren monumentuaren magalean. Ereka baseri inguruitik. Aitzolek kapera zuten hartatik, da pasateko orain Abiadura Handiko Trenea ere, Montesku mendia tarte honetan. Lekutan utzi behar du Lizardiren Butzi- sioak hura.

Arto musker, mendri, baseri zirkak, ale gorri abaldueta sagarrak:

Oro laro me batek estalia, urrez oro eguzkiak yantzia...

Nekazari, gizarri bat iduri sozietari zuri, beyondeizula zuri...

Abiadura Handiko Trenea jar- ten badute lekuan peratu be- har du Lizardiren bultzak! Ez al zaitu iruditzen?

Irargari laburrak

Advertisement for 'Kalle Nagusia, 13 VILLABONA' featuring a logo for 'IMOBILIARIA ETA ASEGURATZEA' and 'LITRESAGASTI'. It lists various real estate services and contact information.

Advertisement for 'Gipuzkoan 50.000 etxetara' by 'ESKELAK'. It offers 19,000 real estate listings for sale and includes contact information for Tolosa.

37. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

# Atsedeen eguna, irabazleen izenak jakitera eman aurretik

Koruek zein epaimahaikideek atsedenaldea izan zuten atzo; gaur, sari banaketa izango da eta Claras Luces Kubako abesbatzak kontzertu berezia eskainiko du



Venno Laul epaimahaikidea —eskuinean—txanpona jaurtitzen atzoko zesta-punta jaiadian. IMANOL GARCIA

INÍGO TERRADILLOS

Ostiralean hasi eta igandea bitarte Abesbatza Lehiaketan parte hartu duten koruek euren dohaiak erakutsi ostean atzokoan atsedeen eguna izan zuten, hori bai, izan zen koruen artean Tolosatik at emanaldirik eskaintzeko konpromisoa zuenik ere. Atsedenaldirik ez gatzeko eta gure ingurua ezagutzeko aukera izan zutenak epaimahaia osatzen duten epaileak izan ziren, horientzat egitarau berezia antolatu baitzuten. Hala, Zumaiako Zuloaga museoa bisitatu zuten goizean, eta kostaldeko herrietatik igarotzeko astia ere izan zuten Zarautzen bazkaldu aurretik. Arratsaldean, berriz, *Jai-Alive* zesta-punta erakustaldia izan zuten ikusgai Beotibar pilotale-

kuan, Odriozola eta Egiguren Artetxeren eta Goitiaren aurkako, hain zuzen. Partida horretara epaileak ez ezik koruetako kideak ere joan ziren. Horiei, zesta-puntaren nondik norakok azaltzen zituen gida banatu zieten, eta partida hasi baino lehen pilotarietako batek azalpenak eman zituen kirolaren inguruan. Bestalde, sarea nork egin jakiteko txanpona Venno Laul Estoniako epaimahaikideak bota zuen. Partidan zehar, gorri ala urdin apustuak egin aritu ziren, amaieran saski bat jasotzeko sari bezala. Partidaren ostean, aparteko kontzertua izan zen San Frantziskoen Die Singphoniker Alemaniako seikotearen eskutik, eta ondoren Beotibar pilotalekuan lehiaketara etorritako zuzendari eta pertsonaiei harrera ofiziala egin zitzaion. Pilotalekuan bertan izan zen abesbatzen dantzaldian epaimahaiaren erabakia ezagutzera eman zuten.

Izan ere, herenegun gauetan bildu ziren epaileak, balorzioa egin eta azken erabakia hartzeko, eta gaurko saioan irabazleen izenen berri eman aurretik ohikoa den moduan atzo aurreratu zituzten.

Abesbatzen munduan nazio-

PETER BROADBENT ▶ EPAIMAHAIKIDEA

## «Garrantzitsuena komunikatzea da»

**I. Garcia - N. Lizartza** ▶ Ez da lehenengo aldia Peter Broadbententzat Tolosan. 1992an bere abesbatzarekin izan zen lehiaketan. Ordunik epaile aritu da eta laugarren aldia da aurten goa. Santa Klarako emanaldian atsedenaldirik izan ginen berarekin solasean.

**Zein da abesbatzen artean orain arte ikusi duzun maila?** Oso ona. Ahots taldeak oso maila altukoak izaten dira. Nola jende gutxi abesten duten, maila on hori mantendu behar dute.

**Zein da Santa Klara, Usabal**

**eta Leidorren arteko ezberdintasuna?**

Santa Klara ederra da. Oso akustika ona du abesbatzentzat eta oso gustura entzuten da. Leidorrek oso akustika txarra zuen, oso zaila abeslariarentzat. Baina zailtasuna bera zen talde guztientzat. Eta, bestalde, nolabait ona zen epaimahaiarentzat, dena entzuten zenuelako. Usabal kirolguneari dagokionez, ez hain gaizki kiroldegi bat izateko. Hori bai, eurriak zarata sortu zuen atzo teilatuan, baina ezin duzu eurria gelditu Tolosan. Kiroldegia

atseginagoa da abesteko Leidor baino.

**Zaila da epaile lana egitea?**

Beti da interesgarria. Izan liteke oso zaila, ahots taldeen lehiaketaren kasuan. Izan dezakezu 14 abeslariko talde bat eta gero boskote edo seikote bat. Horregatik gauza ezberdinak espero dituzu. Eta beti zaila da maila altuko abesbatzak dituzunean ezberdintasunak bilatzea. Eta noski, jasotzen duzun parte bat pertsonala da, subjektiboa. Hau da, egiten duten interpretazioa zure gustukoa den.

**Zer izaten duzu kontuan puntuazioa ematerakoan?**

Niretzako garrantzitsuena komunikazioa da, entzulegoarekin komunikatzea. Izan behar den berezko maila altuaz aparte, bilatzen dudana batez ere da eszenatokiaren gainetik sortzen dena, bihotzetik ateratzen den hori eta zuzenean entzulegoarengana joaten dena. Batzuetan, guztiz adituak ez diren abesbatzek antzezteko sekulako abilezia dute.

**Nolakoa da Tolosako entzulegoa?**

Beti oso ona, beti arreta han-



I. GARCIA

diarekin entzuten. Eta badakite zein diren abesbatza onak eta ez hain onak, eta gozatzen dute. ◀



## 37. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekintza

kultura

Babesle Ofiziala



artean ezagun diren zazpi epailez osaturikoa da epaimahaia: Enrike Azurza tolosarra bigarren urtez epaimahaiko lehendakari izan da. 1985etik Hodeiertz Abesbatza zuzentzen du eta KEA ahots taldea sortu zuen, besteak beste; Peter Broadbent-ek (Erresuma Batua) eraturiko korua Europako abesbatzetan puntakoa izatera iritsi zen; Volker Hempfling alemaniarrek Kölner Kantorei abesbatza sortu zuen 1968ean. Musika erromantikoa eta garaikidean bereizitua da; Bo Johansson suediarrek sari garrantzitsuenak jaso ditu bere abesbatzekin zein zuzendari bezala; Venno Laul Estoniako Koruen Elkarteko lehendakaria izandakoa da; Alexander Vacek (Ukrania) Oreya abesbatza sortu zuen 1986. urtean eta 2002an Europako sari nagusia lortu zuen Gaudeamus abesbatzarekin; Wilma ten Wolde (Holanda) Netherlands Vocal Talent Foundationeko zuzendari artistikoa da eta gazteen abesbatzen zuzendaritzan bereizitua.

**Kubako musika**

Ohitura denez, gaur, Santu Guztiaren Eguna izaki, banatuko dira Abesbatza Lehiaketako sariak amaiera saioan. Baina horrez gain, kontzertu berezia izango da 20:00etan, San Frantzisko elizan, Kubako Claras Lucas taldearen eskutik. Hiru emakume eta bi gizon osatzen dute taldea: Aurora Parra (sopranoa), Iraida Galban Ladrón de Guevara (sopranoa), Dianelis Rivera del Toro (Altoa), Randoi Rodríguez Rubio (tenorea eta Reyner Silegas Ramires (baxua eta zuzendaria). Silegas maisu gazteak sortu zuen taldea 2004ko ekainean Frantziara

**IRITZIA ▶ MIGUEL ZEBERIO (MUSIKARIA)**

Amets egiten saiatu ginen



**I**gande goizez, tropelean iritsi zen ikusle gozatzeko Usabalera. Gainontzeko saioen aldean, ilara luzean zebiltzan atea noiz irekiko zain, nork baino nork eserleku hobeak aukeratu asmoz. Behin barruan, fokoak piztu eta Josu Elberdinen *Alami* abestiak proposatu bezala amets egiten saiatu ginen, taldeek, bakoitzak bere mailan txunditu gintzaten. Kontakizunean aurrera egin aurretik esan nahi nituzke goran aipatutako obra behartuaren birtuteetarik bi: kantatu erraza izatea bata, eta, bestea, koru guztiak idatzitakoaren gainean emaitza interesgarri eta erakargarria lortzeko gai izana.

Txekiako Mbidizio koruak, lanerako helburu pedagogikoa erakutsi zuen. Oinarriko ikasmaitatik edo eskola mailatik hurbil eta betiere interesgarrian murgildurik. Hungariako Miraculum, berriz, partaide heldutxoek osatua hau, goi mailako bidezidoretatik aritu zen beren ahots teknika landua medio. Estilo, garaiak argi bereiztuaz, intentsitate eta kontrasteak nabarmenduz eta Elberdinen *Dragoi Barkartia*-n bertan erritmo eta joskerak trebezia lortuaz aritu ziren. Egitaraua

iritsi zenean. Bost kubatar abeslariz osatua, guztiak Europan bizi dira eta Kubako Errepertorio Barrokoa eta tradizionala abestuz gozatzeko elkartu ziren.

Miarrizteko La Cita zinema jaialdian eskaini zuen bere lehenengo kontzertua Claras Lucases ahots taldeak eta Gerard Tourtrolek grabatu zuen 2004ko urrian France Musique-arentzat. Horrela, Frantziara

bera ere ez zen txantxetako izan herenegun.

Saio gustagarriena Kanadako Newfoundlandena izan zen. Dinamika aberatsak, ahoskera edo emisio natural itxura koaren mesedetan jarriak, hurbiltasuna igorri zuten. Zoragarria izan zen *Alami*-ren zati instrumentaletan eskainitako mimikaren bidezko antzezpena. Orokorrean nabarmentzekoa zen afinazio eta interpretazio oneren gainetik soinu planoekiko aberastasuna.

San Cugateko gaztetxoak ere ez ziren atzera gelditu. Hasieran beharbada lehiaren tentsioa zela-eta arazotxoak izan zituzten, baina baita hauek ongi uxatu ere 1976 urtean Tapiola koru ezagunarentzat Pekka Kostiainen konposagileak sorturiko *Jakkobin Pojat* obra konplexu eta jostalarian.

Israeldik etorritako Bat-kol taldea suertatu zen goizeko talderik epelena. Dena goxo eta intimista egin nahi eta azkenerako emaitza lausotuegia suertatu. Gazte saioak izaki, beren energia aske uzteak emaitza hobeak eskainiko zizkielakoan nago.

Tarte labur honetan ezin aipatu gabe utzi aurtengo abesbatza mixtoak, maila txukunekoak guztiak, Tolosako ohiko goi mailarekin alderatuaz. Azpimarragarriak, beharbada; Norvegiako Schola Cantorum. Soinutresnarik orekatuena, tinbre eta enpasteari dagokionean. Argentinako

San Juango Unibertsitateko Abesbatza, era kontudentean eta heldutasunez lan egin zuten nahiz eta batzutan makinaria astuna bihurtu. Suediako Maria Magdaleinak errazago ekin zion folkloreari: giroa alegatze moduan bukatu zuen larunbat gaueko emanaldia. Suitzako Molto Cantabile ezin ahantziko dugu, meritu handiz defendatu baitzuten gaztetasunaren eremua.

Polifonia saileko obra behartua *Jesu Dulces Memoria*, Hilarion Eslava XIX. mendeko nafar konposagile eta pedagogoi zor diogu. Inspirazio handiko tema hau, garaiko italiar estilotik eta konkretuki Giuseppe Verdi maisu handiarengandik hurbilekoa, guztien gozamenarokoa izan da.

Folklore sailekoak, Luis de Aranbururen *Kitolis*-ek, aldiz, hamaika buruhauste eragin die atzerritarrei; hiru zatitan banatua dagoen obra honek, amaieran ezpatadantzaren erritmoan eraikia du azken melodia eta jakina, beste zenbait dantzarako erritmoekin gertatu ohi den antzera, alde dago idazten denaren eta era herrikoiekin erritmo hori dantzatzen denaren artean. Emaitza da bakoitzak bere erara jeroglifiko erritmiko antzera konpondu duela kontua, dantzarako ezinezkoa den neurriraino iritsi arte. Hurrengo batean antolatzaileek, azalpen txiki baten laguntzarekin helarazi beharko lukete honen antzeko erritmo partikularra duen kanta herriko oro.

lifonia saria emango dituzte; ahots taldeetan musika erlijioso saria eta musika profanoa saria banatuko dira eta haur abesbatzen sailean ere beren saria izango dute gaztetxoek. Bakoitzean hiru sari banatuko dira. Bestalde, entzulegorekin saria ere banatuko dute. Lehiaketan zehar entzuleen puntuazio altuena jaso duenak eramango du.

Eta nola ez, Kutxa sari nagus-

sia ere banatuko dute. Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusian Tolosa ordezkaturiko duena. Talde horrek Tolosara bueltatu beharko du, datorren urteko Sari Nagusia herrian jokatuko baita, ekainaren 18an. Ordurako Leidor aretoaren obrak amaituta egotea espero da, eta epaile, zuzendari eta abeslariak hainbeste kritikatu duten akustika ere obrekin batera aldatzea.

**hitza**

**lagunen txokoa**

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

**Egin zaitez harpidedun!**

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaia  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

**ILUMINAZIOA**  
SHANTI KIROLAK  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 1a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zaintzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Alegia.** 1956an edota 1957an Alegian jaio edo orain Alegian bizi direnen afaria egingo dute hilaren 12an. Izena emateko, 40 euro sartu behar dira 2101 0073 16 0124706508 kontu zenbakian etzi baino lehen, agindu emailearen izena jarritz.

**Belauntza.** Kultur Etxean yoga ikastaroa antolatuta dute azaroa, abendua eta urtarrilerako, asteartetan, 20:00etatik 21:30era.

Erlaxazioak, estiramenduak... landuko dira. Hilabetero 20 euro ordaindu behar dira. Izen-ematea Kultur Etxean edo 943 67 00 20 telefono zenbakian egin behar da, hilaren 4a baino lehen. Ikastaroaren hasiera hilaren 8an izango da.

**Tolosa.** 1955ean jaio eta aurten 50 urte betetzen dituzten festa ari dira prestatzen. Hilaren 12an izango da. Informazioa: 650 693540 (Santi Belloso), 630 908045 (Joaquin Odriozola) eta 669 828818 (Angel Garcia). 75 euro sartu behar dira Kutxan: 2101 0152 68 0125058396 kontu zenbakian.

**Tolosa.** 37. Abesbatza Lehiaketaren amaiera ekitaldia, 11:00etan hasita, Usabal kirolegian. Bertan sari banaketa egingo dute eta irabazleek kantu bat eskainiko dute.

**Tolosa.** Euskal presoan Euskal Herriratzeko eskatuko dute, 10:30ean egingo duten elkarretaratzean. Usabal kirolegian iragan izango da, Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketa dela eta.

ERAKUSKETAK

**Tolosa.** Ipuinartearen I erakusketaren Aranburu Jauregian. Herrialde eta kultur desberdinetako artisten lanak eta idatziak daude ikusgai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

**Tolosa.** Javier Ollarrea. Martin Jose Iraola 10. 943-672438.  
**Leitza.** M. Plaza. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Busturialdekoek ere bai

'BUSTURIALDEKO HITZA' ▶ Atzo banatu zuten eskualdeko 20 herrietan egunkariaren 0 zenbakia, eta abenduaren erdialdera sortuko dute

IBON LOPEZ / GERNIKA

**B**usturialdeak laster izango du euskarazko egunkaria —BUSTURIALDEKO HITZA—, abenduaren erdialdera sortuko delako. Zazpigarren HITZA izango da. Euskarazko prentsan herri informazioan eskualdean dagoen hutsunea beteko du; hiru aldizkari daude eta laster egunkari bat ere izango da. Herritarrek egunkaria nolakoa izango den jakiteko, proiektuaren sustatzaileek atzo 0 zenbakia banatu zuten, Busturialdeko 20 herrietan.

Beste eskualdeetan bezala, euskaigintzako elkarteak, gizarte eragileak eta Bertako Hedabideak (EKTkoa) dira bazkideak. Dagoeneko berrogei elkarte sartu dira HITZAREN enpresan (ikastetxeak, enpresak, euskara taldeak, kooperatibak, kirol elkarteak...).

Animatuta daude sustatzaileak, eta 6.000-7.000 aleko tirada dute helburu. Hain zuzen, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK egunero 7.500 ale banatzen ditu, Oarsoaldekoak 6.000 ale, Lea-Artibai eta Mutrikukoak 5.300, Urola Kostakoak 10.000, Goierrikoak 8.500, eta Donostiakoak, berriz, 8.000. Egun dauden sei Hitzen artean, beraz, 45.000 aleko tirada baten dute.

«Garrantzitsua da prentsan euskarazko komunikabideek erreferentzialtasuna lortzea. Eta horrek euskararen normalizazioari mesede egingo dio, egunero milaka herritar jarriko direlako euskaraz irakurtzen», diote BUSTURIALDEKO HITZAKO arduradunek.

Zortzi orrialde edukiko ditu



Atzo, BUSTURIALDEKO HITZAREN 0 alea banatu zuten eskualdea osatzen duten 20 herrietan. HITZA

egunkariak, eta Elantxobe, Ereño, Gautezig-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Mendata, Muxika, Forua, Kortezubi, Murueta, Nabarniz, Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Morga, Mundaka, Errigoiti eta Sukarrietako berri emango du, asteartetik igandera. «Kalitatez dugu helburu, pluralak izango gara eta euskaltzaleak».

Atzo irten zuen 0 zenbakia,

baina HITZAREN sustatzaileak uda aurretik ari dira udalei eta alderdi politikoei egitasmoa zehatz-mehatz azaltzen. Udak bakoitzari urtean biztanleko hiru euroko laguntza eskatu diote. «Proiektu honek hasieratik sustraiak bota behar ditu, eta eskualdeko udalek laguntza eman behar dute, gure usuez». Bermeoko Udalak dagoeneko erabaki du HITZA diruz laguntzea, «eta laguntza hori,

eskertzekoa ez ezik, oso garrantzitsua izango da proiektua sendo abiatzeko». Eusko Jaurilaritziatik laguntza jasoko dela espero dute, beste Hitzek jasotzen dutelako, eta Bizkaiko Diputazioan ere eskatuko dute laguntza (honek ez du laguntzen LEA-ARTIBAIKO HITZA).

Zazpigarren HITZA, beraz, Busturialdean Bertako Hedabideak, horrelako gehiago sortzeko lanean ari da.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

**Tomasa Arostegi (Bidania).** Gaur 87 urte. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

## HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAREN egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!